

En todo momento, el libro, denso y plagado de ejemplos, se revela un útil compañero a la hora de adentrarse en los arcanos de ese arte, o esa técnica, que es el Periodismo. Que, si bien es cierto aquello de que *quod Natura non dat, Salmantica* (o, en este caso, *Vasconica*) *non docet*, también es verdad que no todo puede confiarse a la inspiración a la hora de redactar un reportaje, una entrevista o una crónica. También existe toda una técnica que puede y debe aprenderse.

Javier Díaz Noci

EUSKARAZKO HERRI ALDIZKARIEI BURUZKO IKUSPEGIA

Hainbat erreferentzia

Azken hamarkada honetan euskarazko herri aldizkariak zabalkunde mardula izan dute. Gaur egun euskal herriko lurralde historiko guztietan bada aldizkariren bat. Nahiz probintzia guztietan euren indarra ez izan berdina, errealitate zabaldua dela esan genezake. Kopuru aldetik, euskaraz idatzitako herriko edo eskualdeko 43 aldizkari gutxienez badira. Irakurleen aldetik harrera ona dute orokorrean eta batez ere asko hitzeginarazten dute herri aldizkariak.

Herri edo eskualde aldizkariak zabalkunde alde handiak agertzen zaizkigu probintzia batetik bestera. Zabalkunde handiena Gipuzkoan dutela garbi nabaritzen da: bertan eginak eta zabalduak dira zortzitik sei astekari, zazpitiik bost hamabostekari eta hilabetekari edo bakanagokoen erdiak inguru.

Aldizkari hauek *Din A4* neurrikoak dira ia denak. Gehienek hogeitazortzi orri eta berrogei arteko orri kopurua izaten dute, herriko jaietako edo beste egun berezietako aleak izan ezik. Herriko jaietako aleak bereziak izaten dira: bai kolore aldetik, bai publizitate aldetik eta baita orri kopuru aldetik ere, urtean bi-hiru aldiz baino gehiagotan ez gertatu arren aldaketa hori.

Antzintasun aldetik Baionan argitaratzen den *Herria* da zaharrena: 54 urte daramatza argitaratzen. Euskaraz idatzitako aldizkari batentzako ez ahal da marka? Gure ustez txapela kentzea merezi du. Besteak bost urtez onuntza sortuak dira gehienak, nahiz bakarren batzuek hamar urte inguruko iraupena dutenak izan.

Aldizkariak tiradetan alde handiak daude: batzuk 7.000 aleko tirada badute, beste batzuk 1.000 ale ingurukoa dute. Tirada hauek badituzte mugak, eta muga garrantzizkoenak bi dira. Lehenengo muga aldizkariak hartzen duen eskualdeko biztanlegoa da, baina eremu horrek beti ez du mugatzen tiradaren kopurua. Askotan finantziatu ezin mugatzen du aldizkariaren tirada, baita bere maiztasuna eta orri kopurua ere. Galde bestela bezero aldetik topera iritxi diren, adibidez, Donostiako *Irutxulokoei* edo Gasteizko *Geu Gasteizkoei* edo Durangaldeko *Erazekoei*. Finantziario arazoa, aldizkari askorentzat oso larria gertatzen ari da.

Astekariak banatzen duten tirada 38.100 alekoa da. Hauetatik %76a Gipuzkoan zabalitzen dira eta bat bera ere ez Nafarroan eta Araban. Hamabostekariak banatzen duten tirada 26.900 alekoa da eta hauetatik ere, Gipuzkoan zabalitzen da %68a. Hilabetekariak kasuan, banatzen den tirada 59.000koa izanik, Gipuzkoan %50a eta Bizkaian %34a zabalitzen dira. Hilabete baino gehiagoko tartearrekin, bakanago alegia, argitaratzen direnak ere zortzi bat badira. Hauek ez ditugu haintzakotzat hartu aipatutako kopuruetan.

Zabalkundea begirutzen denean ikus daitekenez, Gipuzkoa dago ondoen hornitua eta Bizkaiaren atzerakada nabaritzen da, batez ere euskaldunen kopurua Gipuzkoan baino zerbait handiagoa dela kontuan izanez gero. Beste probintzietan eskasia gogorra dagoela esan-gu genuke. Eta batez ere azpimarratu behar da hiriburu guztietako egoeran agertzen den eskasia, biltzen den euskaldun kopuru handia kontuan izanik.

Euskarazko aldizkarien mundua ez da herri aldizkariekin bukatzen. Badira hainbat Aldizkari eta Berripaper euskaraz idatzitako eta euskararen eremu zabalean banatzen direnak eta kontuan hartzea merezi dutenak.

Aldizkari hauen artean azpimarratu nahi genituzke *Argia* astekaria 12.000 alerekin, *Aizu* hamabostekaria 2.000 ale inguruko zabalkundearekin, *Ikastola* hilabetekaria 43.500 ale famili-famili zabaltzen dituena, *Administrazioa Euskaraz* hilabetekaria 10.000 aleko zabalkunde-arekin, *Elhuyar*, *Jakin* eta abar, gutxienez 28 aldizkari diferente osatu arte.

Eragin aldetik esangura tikiagoa izan arren, Berripaperak ere, zortzi bat, aipatzekoak dira. Piskanaka-piskanaka euren lekua hartzen ari baitira.

Herri aldizkarietara itzuliz, lehen esan dugun bezela probintzia batetik bestera alde nabariak daude. Batez ere Bizkaiko eskasia azpimarratuko genuke. Gipuzkoan argitaratzen diren astekariak, 100 euskalduneko 8,65 ale zabaltzen dituzte; hamabostekariak 5,42 ale eta hilabetekariak 8,74. Bizkaian ordea, astekariak 1,46 ale zabaltzen dituzte; hamabostekariak 0,67 ale eta hilabetekariak 5,85. Araba Bizkaiaren antzera dago eta Nafarroan Bizkaian baino gehiago zabaltzen dira.

Lurralde historiko batetik besterako aldeak ikusirik, batek pentsa dezake gizarte zibilaren ahultasunaren neurria izan daitekeela. Gure ustez, batez ere politikarien jokabidearen ondorioa da. Bizkaiko Foru Aldundiak herri aldizkarietarako ez du apenas diru laguntzarik lutzaten. Ez behinik behin Gipuzkoako Foru Aldundiak edo Nafarroako Gobernuak aurrirakosten duten kopu-ruenik alderatzeko moduko proportziotan. Aldizkarien ezinak argi salatzen du bidegabekeria.

Gaztelaniaz idatzitako prentsa irakurleak Hego Euskal Herriko audientzia potentzialaren %53,9ko esparrua hartzen du. Irrati entzuleak %55,2 eta telebista ikusleak %83,4. Orokorrean audientzia kopuru aldetik telebista ikusleak dute parterik garrantzitsuena. Herrialde batetik bestera ez dago nabarmentzea merezi duen besteko alderik. Telebista ikus-lea da gorantzaka egiten ari dena eta irrati entzulea berriz, orokorrean, beherantzako joera duena, nafararren artean batez ere.

Eguneroko prentsaren audientziaren datuak kontuan izanik, esan daiteke hedabideak nolabait gizartearen giltzarria ere badirela. Beste era batera esanda, nahiko zaila dela edo-norentzat hedabideen eraginetik kanpo bizitzea.

Hego Euskal Herrian ehun sendiren artean gaztelaniaz idatzitako 54 egunkari, 113 astekari eta 29 hilabetekari hartzen dituzte. Euskaraz zabaltzen den prentsa, aldiz, juxtu-juxtu ez bada ere, oker handi gabe, horrela da: ehun sendiko 1,3 egunkari, 8,5 astekari eta 6,1 hilabetekari.

Euskaraz idatzitako prentsaren zabalkundea, gaztelaniaz idatzitakoaren zabalkundekin, Hego Euskal Herriko eremuan alderatuz gero, ia larrugorritan dagoela ikusten da. Arduragarria da benetan. Gaztelaniazkoetara iristeko, euskarazko prentsaren zabalkundea biderkatu egin beharko litzateke: egunerokoetan 41 aldiz, astekari eta hamabostekarietan 13,3 aldiz eta hilabetekarietan 5 aldiz. Hontaz ari garela kontuan hartzeko gauza da gaztelaniazkoen balizko irakurleak, Hego Euskal Herrian, euskarazkoenak baino 2,7 gehiago direla. Baina hau kontutan hartuta ere, zabalkundean koska handia dago gaztelaniaz idatzitakoaren alde.

Euskaraz idatzitako herri aldizkariaren ugaltzea Euskara Elkartearen eskutik etorri da gehienbat. Euskal Herriko gizarte zibilak izan du ekimena, beste arlo askotan bezela, euskarazko komunikabideen ezarpenean: prentsa idatzia dela, irratia dela edo telebista dela. Baina euskarazko prentsa idatziaren garapena litzateke azpimarragarriena. Batez ere euskararen normalizaziorako eginkizuneko arloan, EITBk betetzen ez duen eremu bat betetzen duelako. Zeregin honetan EITBren osagarri suertatzen dela esango genuke.

Euskarazko prentsa idatziko herri aldizkariak gaur egungo egoeran ezingo dute indarririk hartu, eta aldizkari gileek alkarrengana hurbiltzea behartuak daude euren proiektua bideragarria egingo duen erakundea egituratzeko.

Joxemari Muxika Arrieta

EUSKARAZKO HERRI KOMUNIKABIDEAK KALITATEAREN GARAIAN

ASKOREN ARTEAN, Herri Komunikabideei Buruzko III. Jardunaldiak: Hitzaldiak. Arrasate: Arrasate Komunikabideak (ARKO) kultur elkarte, 1998; 95 or.

Euskal Herrian euskarazko prentsak eta, oro har, euskarazko komunikabideek inoiz izan ez dituzten indarra eta zabalkundea lortu dituzte 1982tik hona. Euskarazko komunikabideen loraldi honetan badira lau mugari nagusi: Euskadi Irratiaren sorrera, 1982ko azaroan; ETB1 kanalaren lehenengo emanaldia, 1982ko abenduan; *Arrasate Press* herri aldizkariaren lehenengo zenbakiaren kaleratzea, 1988ko abenduan; eta, *Euskaldunon Egunkariaren* sorrera, 1990eko abenduan. Bestalde, 1980ko hamarraldian Gure Irratia, Irulegi Irratia eta Xiberuko Boza sortzea ere garrantzi handiko gertaera izan zen Ipar Euskal Herrian. Euskarazko komunikabide modernoek sorrera markatzen dute data horiek. Beraz, 1980-90 tarte euskarazko komunikabideen hamarkada izendatu daiteke inolako zalantza izpirik gabe.

Euskarazko herri prentsa fenomeno sozial moduan *Arrasate Press* astekariarekin batera sortu zen 1988an. *Arrasate Press* sortu aurretik ere bazen herri komunikabiderik, noski. Baina hura sortu zenetik indartsu loratu dira herri komunikabideak gure artean. Prentsa da, segurasko, gehien hedatu eta indartu dena. Dagoeneko asko dira euskarazko aldizkaria, irratia edo telebista duten udalerrak. Euskal Herri osoan aspaldiko hamar urteotan sortu diren herri edo eskualde-aldizkari horiei esker euskal prentsa idatziak sekula izan ez duen zabalkundea lortu du. Argitalpen berri hauek –50 bat, guztira– 120.000 aleko tirada dute eta 450.000 bat irakurlek hartzen dute eskuarteetan. Bestalde, maiztasun handikoak dira euskarazko herri-aldizkari gehienak. Izan ere, gaur egun argitaratzen diren berrogeita hamar aldizkarietatik hogeita hamazortzi astekariak, hamaboskariak edo hilabetekariak dira. Bestalde, irratiak eta telebistak, poliki bada ere, gero eta zabalduago daude. Esan daiteke herri eta eskualde prentsa Hegoaldean dela indartsu. Iparraldean, berriz, eskualde irratiak.

Duela gutxi arte, herri komunikabideren bat sortu nahi zuenak ez zekien nora jo eta askotan Euskal Herriko kanpora joan behar izaten zuen eredu bila. Gaur egun, berriz, nahikoa eredu dago Euskal Herrian bertan ere. Hortaz, bada, orain kontua ez da aldizkari, irratia edo telebista bat nola sortu. Komunikabide bat sortu nahi duenak badaki nora jo.

Zein da, baina, euskarazko herri komunikabideen arrakastaren arrazoiak? Eskaintzen duten produktua bera: hau da, informazio hurbila. Albisteen hurbiltasuna da, mundu osoko komunikabide hurbilak aztertu dituzten ikertzaileen iritziz, haien arrakastaren arrazoi nagusia. Dena den, iritsi da garaia kalitatea aintzat hartuta lan egin dezaten. Bezeroa –kasu honetan,